

D EREDUA DUTEN NAFARROAKO HAUR, LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAKO HIZKUNTZA PROIEKTUA EGITEKO PRESTAKUNTZA ZERBITZU BATEN KONTRATAZIOA ARAUTZEN DUEN BALDINTZA-AGIRIA, 2019-20 IKASTURTEAN EGIN BEHARREKOA.

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza-agiri honen xedea da ezartzea Nafarroako D eredua duten Haur, Lehen eta Bigarren hezkuntzako ikastetxeetan ikastetxeko hizkuntza-proiektua egiteko prestakuntza-zerbitzuaren kontratazioa arautuko duten alderdi juridiko, administratibo eta ekonomikoetako eskubideak eta betebeharrak zehazten dituzten itunak eta baldintzak, 2019-20 ikasturtean zehar egin beharrekoak, baldintza-orri honetan jasotzen diren agindu teknikoekin bat.

Prestakuntza hori ikastetxeko 20 hizkuntza-koordinatzaileentzat izango da gehienez ere, 2019-20 ikasturtean zehar, eta esparru teoriko eta metodologiko bat emango da ikastetxeko hizkuntza-proiektuak garatzeko, baita aholkularitza-zerbitzua ere. Saio presentzialei dagokienez, hauek izango dira hizpide: hizkuntzen eta beren didaktikaren oinarriak; hizkuntza- eta kultura-aniztasuna balioestea; gelako irakaskuntza-praktikari buruzko hausnarketa egitea eta hobekuntzak proposatzea; ahozkoitasuna eta norbere hizkuntzarekiko atxikimendua lantzeko proposamenak egitea; hizkuntza-proiektuaren dimentsioaz eta ezaugarriez jabetzea; diagnostikoak eta plan estrategikoak egiteko tresnak, eta ikastetxearen proiektua diseinatzeko dinamizazio-proposamena.

Nafarroan D eredua duten ikastetxe guztiak izango dira prestakuntza prozesu horretan parte hartzera gonbidatuak, eta Hezkuntza Departamentuko Euskara Atalak aukeratuko ditu azkenean parte hartuko duten ikastetxeak, prestakuntza eskaintzan zehaztuko diren irizpideen arabera, gehienez hogeit hamar.

Batzordearen 2007ko azaroaren 28ko 213/2008 EE Erregelamenduaren arabera, hona CPV kodea: 80410000-1, Askotariko eskola zerbitzuak (Kontratuei buruzko Foru Legearen II A eranskina: "37. artikuluan jasotako kontratuak, pertsonentzako zerbitzuenak": CPV kodea; 80000000-4 Hezkuntza eta prestakuntza zerbitzuak-etik 80660000-8-ra).

Zerbitzu kontratu hau **Europar Batasuneko atalasetik beherako prozedura irekiaren** bidez esleitu da, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 30, 37, 72 eta 89. artikuluetan xedaturikoaren arabera.

2. SORTAK

Kontratu honek ez du aurreikusten sortatan banatzea, apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 41.4.b artikuluekin bat etorritik, prestakuntza prozesu jarraitua izanik, eta aholkularitza eta tutoretza zuzena izanik prestakuntza prozesuan parte hartzen duten pertsonen taldean lan egiteak prestatzaile bakarra izatea eskatzen baitu, prestazioan helburu koherente, jarraitu eta bateratuak dituenak.

3. KONTRATAZIO ORGANOA ETA KONTRATUA KUDEATZEN DUEN UNITATEA

Kontratu honen kontratazio organoa Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia da, eta bere unitate kudeatzailea, berriz, Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuaren Euskara Atala.

4. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

Kontraturako gehieneko zenbatekoak **35.000,00 euro (hogeita hamabost mila euro)** egiten du, **BEZik gabe, (prestazio hau BEZa ordaintzetik salbuetsita dago,** Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeko 17. artikulua arabera)

Zenbateko hori honela kalkulatu da: gutxienez zortzi saio presentzial hartu dira erreferentziatzat, 2019-20 ikasturtean egin beharrekoak. Gainera, ikastetxeko hizkuntza-praktikak aztertuko dira, ikastetxe parte-hartzaileak koordinatzeko online plataforma bat egingo da eta ikastetxe bakoitzean prozesuaren jarraipena egingo da, tutoreekin. Prestakuntza hori ikastetxeko hogeitaz hizkuntza-arduraduni emango zaie, gehienez ere. Zenbateko horretan sartuta daude balorazio-faktore guztiak, kontratatutako prestazioa ohikotasunez betetzeko esleipen-hartzaileak egin beharreko gastuak, eta indarreko xedapenen arabera aplikatzekoak diren edozein motatako zergak (gorago aipatutako BEZa izan ezik).

Eskaintza xehakatuko da **2. ERANSKIN**eko kontzeptuen arabera.

Ordainketa Departamentuaren 2019ko gastuen aurrekontuaren kargura egingen da, 420001-42410-2266-321200 "Irakasleen prestakuntza euskaraz" partidaren kargura, baita 2020ko gastu-aurrekontuko partida baliokidetik ere. Baimen hori emateko, kontratuaren ondoriozko betebeharrak finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da.

5. GAUZATZEKO EPEA

Kontratua gauzatzeko epea hura sinatzen denetik 2020ko ekainaren 30era bitartekoa izango da, eta prestakuntza-saioak 2019-20 ikasturteko eskola-egutegiak hartzen dituen eskola-egunetan egingo dira.

6. KONTRATATZEKO AHALMENA

Administrazioarekin kontratuak egin ditzakete pertsona natural edo juridiko espainiar edo atzerriarrek, honako baldintza hauek betetzen badituzte: jarduteko ahalmen osoa izatea, kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala frogatua izatea eta Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 22. artikuluan zerrendaturik dauden bateraezintasun eta debekuetako bakar bat ere ez izatea eta interes gatazkan ez egotea. Pertsona juridikoak badira, haien helburuak edo jarduerak kontratuaren xedearekin lotura zuzena izan beharko du, haien Estatutuetan edo eratze-erregeletan ezarritakoari jarraikiz. Halaber, kontratua behar bezala betetzeko nahikoa elementu pertsonal eta material dituen antolakunde bat izan beharko dute.

Era berean, lizitatzailleak kasuko enpresa edo lanbide arloko gaikuntza izan beharko du, kontratuaren xedea den jarduera edo prestazioa egiteko beharrezkoa dena.

Era berean, kontratuak egiten ahalko ditu batera parte hartzen duten lizitatzailleekin, horrela ezartzen baita Kontratu publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 13. artikuluan.

Lizitazio eskaintza taldean aurkeztu duten lizitatzailleek ezin izanen dute bakarkako proposamenik aurkeztu, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 53.3. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Azpikontatzaiziorik izanez gero, lizitatzailleak azpikontatisten zerrenda aurkeztu beharko du, baita azpikontatistaren erantzukizunpeko adierazpena ere, kontratuaren baldintzak beteko dituela eta 22. artikuluko inguruabarretan ez dagoela dioena.

7. GUTXIENeko KAUDIMEN BALDINTZAK

Edozein enpresa, bere kaudimen tekniko edo ekonomikoari esker, aurkeztu ahalko da zernahi sortara eta batoren edo bestearen adjudikatzailea izan ahalko da.

7.1. Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa

Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 16. artikuluen arabera, kontratu hau egikaritzeko eskaturiko kaudimen ekonomiko eta finantzarioa **baliabide hauen bidez egiaztatuko da:**

- a. Finantza entitate batek, gutxienez, lizitatzaillearen ahalmen ekonomikoaren gainean egindako adierazpena, zeinetan esanzen den entitatea gai dela bere gain hartzeko kontratu hau egikaritzearen ondoriozko arriskuak.
- b. Kontratu honen xede diren jardueren gisako esparruko negozio bolumen globalari buruzko adierazpena, azken hiru ekitaldiak (epe horretan) osorik hartuz, gutxienez 20.000 eurokoa (BEZik gabe) izanen dena.

7.2. Kaudimen tekniko

2/2018 Foru Legearen 17. artikuluen arabera, kontratu hau egikaritzeko eskaturiko kaudimen tekniko profesionala dokumentazio hau aurkeztuz egiaztatuko da:

- Lizitatzailleak azken hiru urteetan emandako antzeko zerbitzu eta prestazio garrantzitsuenen zerrenda. Zerbitzu edo prestazio horien xedea haxe izanen da: Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuak egiteko formazioa helburu duten ekintza edo programak, kontratu honen xedearen ezaugarri berberak edo antzekoak dituztenak. Hartara, zerrenda horretan adieraziko da zerbitzuaren edo kontratuaren izena, zenbatekoa, epea, data eta hartzailea, dela publikoa dela pribatua.

- Uste izanen da lizitatzen duenak baduela kontratua egikaritzeko kaudimen tekniko edo profesionala, baldin eta egiaztatzen badu, azken hiru urteetan, euskarazko Ikastetxearen Hizkuntza proiektuak egiteko prestakuntza-jarduera edo –programak helburu dituzten hainbat kontratu egin dituela, kontratu honen antzeko ezaugarriak dituztenak, 20.000 euroko kopuru bereko edo handiagoko zenbatekoa dutenak aurrekontuaz (BEZ kanpo).
- Zerbitzu-zerrenda hori egiaztatzeko, eskaintza onuragarriena aurkezten duen enpresak, adjudikazioduna izateko proposatua izan dadin, zerbitzua egoki egikaritu dela dioten ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, zerbitzuaren hartzaile izan diren entitate edo enpresen ordezkariak duten pertsonen zigilatuak eta sinatuak. Bertan adieraziko dira kontratuaren xedearen identifikazioa, zenbatekoak eta gauzatze-datak, azken hiru urteetakoak izan beharko direnak.

Ziurtapen hori ez da beharrezkoa izanen Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuari emandako zerbitzuen kasuan; halakoetan aski izanen da, besterik gabe, entitate horrendako egindako zerbitzuak aipatzea.

8. KONTRATAZIO MODUA

Kontratuaren izaera administratiboa eta zerbitzu ematekoa da.

Tramitazio ohikoko kontratazio espediente hau gauzatuko da **Europako gutxienekoa baino txikiagoko prozedura irekiaren** arabera, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 72. eta 89.1.c) artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

Zerbitzu kontratu hau adjudikatzeko prozedura eta haren egikaritzea Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen arabera egingen dira.

9. PROPOSAMENEN AURKEZPENA

Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta hura garatzen duen erregelamenduan ezarritakoari jarraikiz, prozedura honetan jasoko diren datuak fitxategi batean sartuko dira, kontratu honen adjudikazio eta egikaritze zuzenak bermatzearren. Datu horiek ez zaizkie hirugarrenei emanen, aipatutako araudian xedatutakorako izan ezik. Lizitatzailleek datuetan sartzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak eta izaera pertsonaleko datuak babesteko legean bildutako gainerako eskubideak erabil ditzakete.

9.1. Tokia eta epea.

Lizitatzaille bakoitzak eskaintza bakarra aurkezten ahal du. Halaber ezin izanen du inolako eskaintzarik izenpetu beste lizitatzaille batzuekin elkarturik, baldin eta jadanik eskaintza bakarka egin badu, ez eta horrelako elkarte batean baino gehiagotan sartu ere.

Lizitazioa soilik elektronikoki tramitatuko da, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean eta Kontratazio Publikorako Batzordea eta haren kargupeko prozedurak eta erregistroak arautzen dituen azaroaren 5eko 236/2007 Foru Dekretuan aurreikusitakoaren

arabera eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan Administrazio Elektronikoa ezartzeari buruzko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legean aurreikusitakoarekin bat etorritz.

Eskaintza osatzen duten agiriak soilik aurkeztuko dira Nafarroako Kontratazioaren Atariaren lizitazio-iragarkian eskuragarri izanen den plataforma elektronikoan (https://www.navarra.es/home_es/Servicios/PortalContratacion/).

Era berean, interesdunekin egin beharreko komunikazio guztiak eta tramiteetako gainerako jarduketak aipatutako plataforman egingen dira.

Eskaintzak aurkezteko epea lizitazio-iragarkian zehaztuko da, eta epea kontatzen hasiko da iragarkia Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Iragarkiak aukera emanen du kontrataziorako agirietan sarbide zuzena, osoa eta mugarik gabea izateko.

Proposamenak aurkezteak esan nahi du enpresa lizitatzailerak agiri honetako klausulak onartzen dituela salbuespen edo erreserba bakarrik gabe, bai eta erantzukizunpeko adierazpena ere, adieraziz aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla eta lanen kontrataziorako eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela.

Eskaintza aurkezteko arazo teknikoak:

Enpresa lizitatzaileraren ezjakintasunak edo kontratazio atarian eskuragarri dagoen “Maizenik gertatutako erroreak” izeneko dokumentuan zerrendatu eta plataformakoak ez diren arazo teknikoetako edozein ez jakiteak ez dute eskaintzen garaiz kanpokotasuna edo ezarritakoak ez diren bestelako bideetatik eskaintzak aurkeztea justifikatuko eta horrek, hartara, lizitaziotik baztertuko ditu.

Enpresa lizitatzailerak eskaintza ixten duenean, bere edukiaren laburpen kriptografikoa sortuko du eta eskaintza aurkeztu duela egiaztaturik geldituko da. Lizitatzaileraren batek eskaintza plataforman aurkezteko zailtasunak baditu, arrastoa kontratazio-organoari posta elektronikoan igortzen bazaio kontratazio atarian ezarritako helbidera, betiere eskaintzak aurkezteko epearen barnean, eskaintza osoa aurkezteko 24 orduko epea izanen da, eskaintzak aurkezteko epea bukatzen den unetik hasita.

Beharkizun horiek bete ezean, ez da onartuko lizitazio iragarkian ezarritako epetik kanpo jasotzen den parte hartze-eskaerarik.

Gutun-azalak irekitzeko unean epez kanpoko aurkezpen bat hauteman bada eta aurkezpen horren gaineko arrastoren bat jaso bada, arrastoa baliozkotzat joko da, arrastoak aurkezpenarekin bat egiten badu eta jasotze-eguna luzatutako 24 orduko epean egindakoa bada. Hala bada baliozkotzat jo eta irekiko da.

Aitzitik, arrastoak bat egiten ez badu edo eskaintza luzatutako 24 orduko epetik kanpo jaso bada, eskaintza baztertuko da eta ez da inoiz ere haren edukia irekiko.

Eskaintza epez kanpo aurkeztu bada eta enpresa edo entitate lizitatzailerak esaten badu eskaintza aurkeztean arazo teknikoak zeudela, eskaintza aurkezteko unean plataforman arazo teknikorik

egon zen egiaztatuko da. Plataformaren funtzionamendu arruntan gorabehera teknikoren bat gertatu bazen, orduantxe bakarrik onartuko da aurkeztutako eskaintza.

9.2. Proposamenen forma eta edukia

Kontratazio Atariaren lizitazio-iragarkitik sar daiteke Nafarroako Lizitazio Elektronikoen Plataformaren gunean. Enpresa lizitatzailerak idazmahaiko aplikazio bat jaits dezake handik, eskaintzak prestatu eta gutun digitalaren bidez aurkezteko.

Eskaintzak lizitatzaileraren idazmahaian zifratzen dira zifratzeko mekanismo estandarrak erabiliz. Behin aurkeztu ondoren biltegi seguruan gordetzen dira.

Onartutako sinadura elektronikorekin sinatuko da eskaintza. Sinadura elektronikoa hori ziurtapen zerbitzuen emailen batek baliozkotasunez emandakoa izanen da, eta agiriaren, eskaintzaren eta hari lotutako dokumentu guztien identitatea eta osotasuna bermatuko ditu, abenduaren 19ko 59/2003 Legean xedatutakoaren arabera. Lege hori kontratazio publiko elektronikoen sinadura elektronikoa eta gainerako xedapenei buruzkoa da.

Eskaintza elektronikoa erantsitako fitxategi indibiduala 30 MB-koa izanen da, gehienez ere. Eskaintzaren tamaina osoa, barneko dokumentu guztiak barne, 50 MB-ko izanen da, gehienez ere. Plataformak ez du mugarik jartzen eskaintza bati erants dakizkiokeen fitxategi-kopuruan.

Lizitazio honetan, eskaintzari erantsiko zaizkion dokumentuak aurkezteko PDF formatua erabiliko da eta, neurri alternatibo moduan, aurkeztutako dokumentuak ZIP erako artxibo konprimatu batean bilduta aurkez daitezke.

Plataformako formularioetan sartutako balio objektiboen eta irizpide bakoitzari eusten dioten atxikitako dokumentuen artean desadostasunak badaude, entitate edo enpresa lizitatzailerak elektronikoki izenpetutako dokumentu eta eranskinek izanen dute lehentasuna.

Eskaintza nork egin duen alde batera utzita, eskaintza elektronikoa sinatu beharko du enpresaren edo entitatearen izenean eta haren ordezkari aritzeko ahalorde askietsia duen pertsonak. Beraz, eskaintzak bi dira:

.- Edo eskaintza osoa sinatzen da elektronikoki enpresaren edo entitatearen ahalordedunaren ziurtagiriarekin. Hala egiten bada, aplikazioaren formularioetan sartutako informazio ekonomikoa baliozkoa izanen litzateke.

.- Edo eskaintza legezko pertsona baliozko baten ziurtagiriarekin sinatzen da (pertsona fisiko edo juridiko ordezkariaren baliozko ziurtagiria) eta ahalordedunak edo ahalordedunek sinatutako eskaintzaren dokumentu elektronikoa erantsiko dira.

Lizitazio elektronikoen plataforman eskaintza honetarako ezarritako egituraren arabera aurkeztuko dira lizitatzaileraren proposamenak eta gutun-azalak hiru izanen dira, halaxe identifikatuta:

- A gutun-azala - Dokumentazio orokorra.
- B gutun-azala.- Irizpide kualitatiboen proposamena.
- C gutun-azala - Irizpide kuantifikagarrien proposamena, formulen bidez.

Prozeduratik automatikoki baztertuko dira, agirietan ezarritakoari jarraikiz, C gutun-azalean sartzea legokiokeen dokumentazioa A edo B gutun-azalean sartzen dutenak.

- A gutunazala: "IKASTETXEAREN HIZKUNTZA PROIEKTUA, 2019-20 ikasturtea: Dokumentazio orokorra":

Gutun-azal honetan dokumentazio zehatz hau sartu behar da:

- a) Aurkezten den edo diren **lizitatzaillearen edo lizitatzaillearen identifikazioa**; pertsona fisikoak, baterako partaidetzak, pertsona juridikoak, aldi baterako enpresari-elkarteak, etab. izan daitezke eta haietako bakoitzaren partaidetza adierazi behar da eta kontratuak irauten duen bitartean haien guztien izenean nor arituko den ordezkaritza osoz Administrazioaren aurrean eta **erantzukizunpeko adierazpena**, lizitatzailleak sinatua; hori guztia ereduaren arabera **(1. ERANSKINA)** :

1. Kontratu publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 55. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitatzaillearen edo haren ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, adieraziz betetzen dituela Administrazio Publikoarekin kontratatze eskaturiko baldintzak eta ez duela kontratatze debekurik.
2. Posta elektronikoko helbide baten identifikazioa, bertara egiteko prozedurako edozein faseri dagozkien jakinarazpenak.
3. Lizitatzaillearen edo haren ordezkariaren adierazpena, laneko segurtasuna eta osasuna zaindu eta laneko arriskuei aurrea hartzeko betebeharrak, indarra duten xedapenetan ezarritakoak, beterik dituela adierazteko.
4. Haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearen 8. puntuan aurreikusitako ondorioetarako (puntu horrek Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren 13. artikulua aldatzen du, 5. atala gehituz), lizitatzailleak aitorpen bat aurkeztuko dute, zeinetan ezarriko baita, lizitatzen den zerbitzua emateagatik, beren enpresan adingabeekin ohiko harremana duten lan-kontratudun langile guztiak, bai aitorpena aurkezteko unean daudenak nola etorkizunean sar daitezkeenak, ez direla epai irmo baten bidez kondenatuak izan sexu askatasun eta sexu ukigabetasunaren kontrako delitu batengatik, eta horren barnean sartzen dira sexu eraso eta abusua, sexu jazarpena, exhibizionismoa eta sexu probokazioa, prostituzioa eta sexu esplotazioa, adingabeak galbideratzea, eta gizakien salerosketa.

Kontratazio-organoak lizitatzailari une oro eska diezaioke, kontratua egikaritzen den bitartean, programan parte hartuko dutenen Sexu Delituen Egileen Erregistro Nagusiaren ziurtagiri negatiboa aurkezteko.

5. Adjudikaziodun gertatuz gero eta kontratua sinatu aurretik, hitzematen duela kontratu honi dagozkion arriskuen estaldura egoki eta nahikorako lege eskaturiko aseguru polizak izenpetu eta lehiaketaren kontratazio organoaren aurrean

aurkeztuko dituela, kontratazio hau arautzen duten administrazio klausulen baldintza-orrian ezarritakoaren arabera.

- b) Baterako parte-hartzea: eskaintza taldean aurkeztu bada, 1. Eranskinean dagokion atala beteko da, borondatea adieraziz taldean parte hartzeko, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 13. artikuluekin bat, edo bestela, aldi baterako enpresa elkarrekin eratzeko, adjudikaziodun gertatuz gero.
- c) Konfidentzialtasuna: Lizitatzaileren berriazko adierazpena, aditza ematen duena bere ustez zer informazio hartu behar den konfidentzialtzat, enpresa-estrategiaren parte izateagatik, 1. eranskinarekin bat.

Kontsiderazio hau B gutun-azaleko dokumentazioan ere islatu beharko da. Lizitatzailak ezin izanen du konfidentzialtasun-adierazpena bere proposamen osora zabaldu. Hala egiten badu, kontratazio organoak zehaztu beharko du, arrazoiturik, zein den sekretu teknikoei edo merkataritzakoei eragiten ez dien dokumentazioa.

Erantzukizunpeko adierazpena egitean faltsutze-delituan erortzea kontratatzeke debekua izateko arrazoi izanen da, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 22.1i artikuluan ezarritakoaren arabera.

Adierazpen hori ez bada aurkeztu, hura aurkezteko eskatu ondoren, ez da aitortzen hori ekartzen ez duen lizitatzaila onartuko.

- B gutun-azala "IKASTETXEAREN HIZKUNTZA PROIEKTUA, 2019-20 ikasturtea: Eskaintza teknikoa-irizpide kualitatiboei dagokien dokumentazioa".

Agiri hauetan zehaztutako eskakizun teknikoei dagokienez, barnean sartuko da formulen bidez zenbatzen ahal ez diren irizpide kualitatiboei dagokien dokumentazio guztia, lizitatzailak aurkeztu duena bere eskaintza teknikoa baloratua eta puntuatua izan dadin, formulen bidez zenbatzen ahal diren irizpideei dagokien dokumentazioa kenduta, hau da, eskaintza prezioa, baldintza-agiri honetan ezarritakoa.

Kontratazio organoaren iritziz, aurkeztutako eskaintzaren bat iluna edo zehaztugabea bada, argibide osagarriak eskatzen ahalko ditu, betiere lizitatzailen arteko tratu berdintasunaren printzipioa errespetatuz, lizitatzailak ezin izanen baitute aldatu aurkeztutako eskaintza. Erantzuteko epea gutxienez bost egunekoa eta gehienez hamar egunekoa izanen da.

- C gutun-azala: "IKASTETXEAREN HIZKUNTZA PROIEKTUA, 2019-20 ikasturtea – Eskaintza ekonomikoa-Formulen bidez zenbatzen ahal diren irizpideei dagokien dokumentazioa".

Eskaintza prezioa edukiko du eta baldintza-agiri honen **2. ERANSKIN**eko ereduaren arabera aurkeztu beharko da.

Lizitatzailak edo hura ordezkatzeko duenak sinatu beharko du proposamena. Taldean parte hartzen duten lizitatzailak izanez gero, taldekide guzti-guztiek edo haien ordezkariak sinatu beharko dute.

Lizitatzailleak eskainitako prezioa ez da **35.000 euro** baino gehiagokoa izanen (**BEZik GABE**).

Ondorio guztietarako, uste izanen da lizitatzailleen proposamen ekonomikoaren barnean sartuta daudela adjudikaziodunak kontratatutako prestazioa betetzeko egin behar dituen balorazio faktore eta gastu guztiak eta edozein motatako gainerako zergak, indarrean dauden xedapenen arabera ezartzen ahal zaizkionak, Balio Erantsiaren gaineko Zerga izan ezik.

Eskaintza ekonomikoak egokia izan behar du adjudikaziodunak aurre egin ahal izateko kasuan kasuko hitzarmen sektorialaren aplikaziotik heldu den kostuari; jasotako soldaten orduko prezioak ezin izanen dira inolaz ere izan hitzarmeneko orduko prezioak gehi Gizarte Segurantzako kostuak baino apalagoak.

Oharra: Prezioa soilik C gutun-azalean sartuko da eta hura ireki arte isilpean gordeko da. Arau hau ez bada betetzen, enpresa lizitatzaillea prozeduratik baztertuko da.

10. ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

Baldintza-agiri honen xede diren lanak adjudikatuko dira Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean ezarritakoaren arabera, Europako gutxienezko bako gutxiagoko prozedura irekia erabiliz. Kalitatearen eta prezioaren arteko erlazioa hobetuz izanen da adjudikatzeko irizpidea.

Prestazioak izaera artistikoa eta intelektuala duenez, puntuazioaren %20 formula objektiboen bitartez lortuko da, Kontratuei buruzko Foru Legearen 64.4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Kontratazio honetan ez zaie gizarte izaerako erakundeei kontratua erreserbatzen, kontratazio honen xede diren prestazioak ez direlako entitate horien berezitasunetara egokitzen

Kontratua esleitzeko, jarraian aipatzen diren irizpideak dagozkien haztapenekin hartu behar dira kontuan:

a) ESKAINTZA TEKNIKOA - IRIZPIDE KUALITATIBOEI DAGOKIEN DOKUMENTAZIOA :

1. Prestakuntzarako proposamena: **80 puntu, gehienez ere.**

1.- Plan xehaketa: **50 puntu, gehienez ere.**

1.1. Atal honetan **25 puntura arte** baloratuko dira, gehienez ere, prestakuntza saioren edukia eta aukeratutako formatua. Baloratuko da hizkuntzen ezaugarriak eta ikastetxearen hizkuntza proiektua prestatzeko oinarri didaktikoei buruzko prestakuntza proposamena; hizkuntza eta kultur aniztasuna balioesteari begira zuzendutako prestakuntza proposamena, eta irakasleek ikasgelan lantzen dituzten praktikak aztertzeko metodologia.

1.2. Atal honetan **25 puntura arte** baloratuko da kontzeptu teorikoak ikastetxean aplikatzeko proposamena, hala nola ikastetxearen errealitatearen analisia, ikastetxearen hizkuntza proiektua diseinatzeko dinamizazio proposamenak, ahozotasuna eta ikastetxearen komunikazio hizkuntzarekiko atxikimendua lantzeko proposamena, proiektu hori

prestatzeko prestakuntza praktikoa eta ikastetxeen errealitate desberdinei aurre egiteko saio praktikoa.

2.- Balorazio soziala. Gehienez ere 10 punturekin baloratuko da ikastetxeetako gainerako langileei prestakuntza helarazteko proposamena, ikastetxearen hizkuntza proiektuak prestatzeko eskuliburuak eta hizkuntza eta kultur aniztasunari buruzko baliabideen eskuliburuak erabilia.

3.- Ingurumenarekiko balorazioa: **Gehienez ere 5 punturekin** baloratuko da baliabide iraunkorrak eta ingurumenarekiko errespetuzkoak erabiltzea.

4.- Alderdi berritzaileak (espezializatutako euskarazko argitalpenak, webguneak, irakasleak motibatzen baliabideak): **15 puntu gehienez ere.**

Berrikuntza horiek, betiere, kontratuaren prezioaren barnean daudela usteko da.

b) ESKAINTZA EKONOMIKOA: **20 puntu, gehienez ere.**

Gehienezko puntuazioa eskaintza ekonomikoenari emanen zaio. Gainerako proposamenek alderantzizko hiruko erregela bat egin ondoren ateratako puntuazioa izanen dute, honako arau matematiko honekin bat:

$$\text{Eskaintzaren puntuazioa} = \frac{\text{Eskaintzarik ekonomikoena} \times 20 \text{ puntu}}{\text{Puntuatu beharreko eskaintza.}}$$

Eskaintza ekonomikoaren puntuazioa bi dezimalekin emanen da.

Eskaintza baxuegiztat joko da beherapena %20 baino gehiagokoa bada.

3 eskaintza edo gehiago aurkezten badira, halaber horrelakotzat hartuko da onartutako enpresa lizitatzailerik guztien eskaintzako beherapenen batez besteko aritmetikoaren %10 baino beherakada handiagoa egiten duena.

Eskaintza baxuegia baldin bada, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 98. artikulua aplikatuko da.

Bi lizitatzailerik edo gehiagok puntuazio bera lortzen dutenean, berdinketa hausteko ondoko irizpideak hartuko dira kontuan, hurrenkera honetan: genero arloko jardunbide egokiak egiten dituela frogatzen duen enpresa. Halakorik ezean, edo berdinketak baldin badirau, behin-behineko langileen ehunekorik txikiena duen enpresa, betiere langileen %10 baino gehiago ez badira. Aurreko irizpide horiek aplikatu ondoren berdinketak irauten badu, zozketaren bidez hautsiko da (Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 99. artikulua).

11. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio mahaiak irekiko ditu proposamenak eta egingen legeak manatzen dizkion gainerako eginkizunak. Honako hauek osatuko dute:

Mahaiburua:

- Euskara Ataleko burua.
- Ordezkoa: Euskararen Sustapenaren eta Didaktikaren Bulegoko burua.

Bokalak:

- Euskararen Sustapenaren eta Didaktikaren Bulegoko burua.
Ordezkoa: Euskara Ataleko teknikaria.
- Euskara Ataleko teknikaria.
Ordezkoa: Euskara Ataleko teknikaria.
- Hezkuntza Departamentuan dagoen kontu-hartzaile delegatua.
Ordezkoa: Kontu-hartze Orokorraren Zerbitzuko teknikari bat.
- Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiko legelari bat, Mahaiko idazkari ariko dena.
Ordezkoa: Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiko legelari bat.

Kontratazio espediente hau onetsitakoan, contratazio organoak Kontratazio Mahaiaren eraketari esleitutako mahaikide bakoitza izendatu eta identifikatuko du.

12. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Kontratazio Mahaiak, ekitaldi pribatu batean, aldez aurreko kalifikazioa emanen dio lizitatzailleek A gutun-azalean tenorez eta moduz aurkeztutako dokumentazio orokorrari, onartzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharrez. Bere jarduketak behar den aktan jasoko ditu.

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 96 artikuluan agindutakoari jarraikiz, aurkeztutako agiriak aski ez badira edo zalantzarako biderik ematen badute, lizitatzailari eskatuko zaio aurkeztutako ziurtagiri eta agiriak osatzeko edo zuzentzeko, eta 5 egun naturaleko epea emanen zaio horretarako. Eskatutakoa zuzendu ondoren behar den eskaintza onartuko da.

Eskaturiko agirietako edozein ez bada aurkezten edo modu okerrean aurkezten bada, ez da lizitatzaila onartuko.

Dokumentazio administratiboa kalifikatu ondotik, Kontratazio Mahaiak ireki eta baloratuko du onartutako enpresen "Eskaintza tekniko" izeneko B gutun-azala (formulak aplikatuz zenbatzen ahal ez diren irizpide kualitatiboei dagozkien eskaintzak), aipatutako irizpideen eta behar bezala haztatutako adjudikazio irizpideen arabera.

Kontratazio organoaren iritziz, aurkeztutako eskaintzaren bat iluna edo zehaztugabea bada, argibide osagarriak eskatzen ahalko ditu, betiere lizitatzailleen arteko tratatu berdintasunaren printzipioa errespetatuz, lizitatzailleek ezin izanen baitute aldatu aurkeztutako eskaintza. Erantzuteko epea gutxienez bost egunekoa eta gehienez hamar egunekoa izanen da.

Nafarroako Kontratazio Atarian iragarriko da, gutxienez ere 3 egun lehenago, formulen bidez zenbatzen ahal diren irizpideei dagokien dokumentazioa zer lekutan, zer egunetan eta zer ordutan irekiko den, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 97. artikuluan ezarri bezala. (C gutun-azala).

Lizitazio elektronikorako plataformaren bidez egingen den jendaurreko ekitaldi horretan, kontratazio mahaiak, jakinaraziko du zein lizitatzailer onartu diren, zein ez diren onartu eta zergatik, baita lizitatzailerak zer balorazio lortu duten ere beren eskaintza teknikoan (B gutun-azala). Geroago irekiko da formulen bidez zenbatzen ahal diren irizpideei dagokien dokumentazioaren eskaintza (C gutun-azala).

13. - ESLEIPEN PROPOSAMENA

13.1. Esleipendunak aurkeztu beharreko dokumentazioa

Adjudikazio irizpideei jarraikiz, sorta bakoitza nori adjudikatzeko proposamena egin duen jakinaraziko dio Kontratazio Mahaiak lizitatzailerari.

Kontratazio Mahaiak proposamen horren berri ematen dionetik gehienez ere 7 egun naturaleko epean, lizitatzailerak dokumentazio hau aurkeztuko du, deusetan ukatu gabe 5 egunean zuzentzeko aukera, Kontratuei buruzko Foru Legearen 51.2 artikuluan jaso bezala::

1) Nortasun juridikoa eta ordezkaritza:

- a) Pertsona fisikoak badira, Nortasun Agiri Nazionalaren (edo arauz hura ordezkatzeko duen agiriaren) kopia aurkeztu beharko dute.
- b) Lizitatzailerak pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribaturiko eratze edo eraldatze eskritura, betebeharrak hori eskatzekoa denean aplikagarri zaion merkataritza zuzenbidearen arabera. Ez bada hala, eratze edo eraldatze eskritura edo dokumentua aurkeztu beharko da, edota estatutuak edo sorrera egintzaren agiria; bertan agertuko dira jarduera erregulatzen duten arauak eta, kasua bada, dagokion erregistro ofizialean inskribaturik izan beharko da. (1)
- c) Beste baten izenean agertzen direnek edo haren izenean proposamenak sinatzen dituztenek ahalorde askietsia aurkeztu beharko dute. Era berean, ordezkariak Nortasun-agiri Nazionala (edo arauz hura ordezkatzeko duen agiria) aurkeztuko du. Lizitatzailerak pertsona juridikoa bada, ahalordea Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribaturik egon beharko da, betekizun hori eskagarria bada aplikagarri zaion merkataritza legediaren arabera.

(1) Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatzailerak Borondatezko Erregistroan (apirilaren 19ko 174/2004 Foru Dekretuaren bidez arautua) inskribatuta dauden merkataritzako sozietate, kooperatiba eta laneko sozietateen kasuan, lizitatzailerak ez du bere nortasunari edo ordezkariari buruzko agiririk aurkeztu beharko, baldin eta aurkezten baditu erregistro horretan inskribatuta egotearen ziurtagiriaren kopia, modu elektronikoan Internet bidez eskuratua, eta horren indarraldiaren gaineko erantzukizuneko aitortpena (4. ERANSKINeko ereduaren arabera).

- d) Eskaintza taldean parte hartzen duten lizitatzailerak aurkezten dutenean, bakoitzak egiaztatu beharko ditu bere nortasuna eta jarduteko ahalmena; gainera, dokumentu pribatu batean zehaztu beharko dituzte enpresari sinatzaileen izenak eta inguruabarrak,

horietako bakoitzaren partaidetza eta zer pertsonak edo zer entitatek izanen duen guztien ordezkarietza osoa Administrazioaren aitzinean, kontratua indarrean dagoen bitartean. Elkarturiko lizitatzailerak bakoitzak edo haien ordezkariak sinatu beharko dute dokumentu hori.

Beti ere, erantzukizuna solidarioa izanen da, eta banaezinak, berriz, kontratutik heldu diren betebeharrak.

Kasua bada, aldi baterako enpresa elkarteak eratzeko eskritura publikoa.

2.) Kaudimen ekonomiko eta teknikoaren egiaztagiria, baldintza-agiriko 7. puntuaren arabera.

Agiri horietako baten bat jadanik Hezkuntza Departamentuaren esku badago, lizitatzailerak horren berri eman beharko du eta, orobat, adierazi zein espedientetan aurkeztu ziren. Hartara, agiri horiek aurkeztetik salbuetsita leudeke.

3.) Ekonomia-jardueren gaineko Zerga egungo ekitaldian altan egotea eta, hala behar denean, zerga horren azken ordainagiria eta erantzukizunpeko adierazpena, aipatutako zerga horren matrikulan baja emanda ez dagoela adierazten duena.

4.) Behar diren ogasunek (Nafarroako Foru Ogasunak eta Estatuko Ogasunak eta/edo foru ogasunak) eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako ziurtagiri positiboak, proposamenak aurkezteko epea bukatu aurreko sei hilabeteko epean gehienez ere emanak, hurrenez hurren, zeinetan esaten den lizitatzailerak egunean dituela, hurrenez hurren, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Eskaintzak aldi baterako propio eratzten diren enpresari elkarteek aurkeztu badituzte, edo elkarturik parte hartzen duten lizitatzailerak, batasunaren osatzaile bakoitzak aurkeztu beharko ditu aipatu ziurtagiriak.

5.) Erantzukizun zibileko aseguruak kontratatu duela frogatzen duen agiria, kontratazio honen xede den zerbitzua emateagatik enpresari egotz dakizkiokeen arriskuak nahikotasunez estaliko dituenak.

6.) Lizitatzaileraren erantzukizunpeko adierazpena, dioena betetzen dituela lege, erregelamendu eta konbentzio mailetako xedapenak, indarrean daudenak honakoei dagokienez: fiskalitatea, Gizarte Segurantzaren, ingurumenaren babesa, enpleguaren babesa, genero-berdintasuna, sexuagatiko jazarpena edo jazarpen sexuala, lan baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa eta lan arloko gainerako xedapenak, desgaituen laneratze eta gizarteratzea. Halaber bete behar ditu desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo portzentaje zehatz bat kontratatzeke betebeharra eta, batez ere, kontratatu beharreko jardura kokaturik dagoen sektorean esparrurik baxueneko azken hitzarmen kolektibo sektorialak ezarritako baldintzak.

7.) Lizitatzailerak azpikontratatu nahi baditu kontratuaren xede diren prestazioak, azpikontratatuen zerrenda osoa aurkeztu beharko du, baita jatorrizko agiri bat ere enpresa horiekin konpromiso formala dagoela frogatzen duena, eta zehazten duena kontratuaren zer atal azpikontratatu den enpresa bakoitzarekin eta zer zenbatekoa duen. Hala eginez gero egiaztatzea beharko da enpresa azpikontratatuak azpikontrata egikaritzeko kaudimen maila aski dutela; hori

aitzineko irizpideekin bat baloratuko da, azpikontrata bakoitzaren gutxi gorabeherako zenbatekoa proportzioz aplikaturik irizpide horiek.

Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada epe horretan edo zuzentzeko errekerimenduaren ondotik, lizitatzailerak prozeduratik kanpora geldituko da, Kontratuei buruzko Foru Legearen 96. artikuluari jarraikiz.

Orobat, kontratatzeko debekua ekar dezake aipatutako epean dokumentazio hori tartean doloa, errua edo zabarkeria dagoela ez aurkezteak, Kontratuei buruzko Foru Legearen 22.1 j) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

13.2. Esleipen proposamena

Kontratazio Mahaiak kalitatearen eta prezioaren arteko erlazioari hoberena aurkeztu duen lizitatzailerari kontratua adjudikatzeko proposamena igorriko dio kontratazio organoari. Nolanahi ere, baldintza-agiri honetan ezarritako irizpide objektiboak aplikatuz, proposamen bakoitzean egiten diren estimazioak adieraziko dira hala nola eskaintza onargarria egin duten lizitatzaileraren hurrenkera eta haiek lortu dituzten puntuazioak, sorta bakoitzean erdietsi dituzten puntuazioekin.

Adjudikazio proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko harik eta adjudikazio ebazpena eman arte.

14. ESLEIPENA.

Kontratazio organoak kontratuaren adjudikazioa ebatziko du, C gutun-azala ("Eskaintza ekonomikoa: formulen bidez zenbatzen ahal diren irizpideak") jendaurrean ireki eta hilabete bateko epean gehienez ere, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 100. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Adjudikazioaren eragina etenik geldituko da 10 egun naturaleko epean, adjudikazioaren jakinarazpena igortzen den egunetik hasita (101. art.).

Kontratuaren adjudikazioa Nafarroako Kontratazioaren Atarian iragarriko da, hogeita hamar eguneko epean, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 102. artikuluan ezarritakoaren arabera.

15. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

Kontratua agiri administratiboan formalizatuko da 15 egun naturaleko epean, adjudikazioaren etenaldia amaitzen denetik aurrera.

Adjudikaziodunari egozten ahal zaion arrazoren batengatik kontratua aurreikusitako epean ez formalizatzeak kontratatzeko debekua ekarriko du, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 22.1 k) artikuluekin bat. Inguruabar hori berariaz adierazi beharko du organo eskudunak.

16. LANEN ORDAINKETA

Kontratistak eskubidea du hitzartutako prezioa ordain diezaioten egindako saioengatik. Horretarako fakturak aurkezteko bi epe izango ditu: bat prestakuntzaren hasieran, kontratuaren % 40ko kopuruagatik, eta bestea prestakuntzaren amaieran, 2020ko ekainean, kontratuaren % 60ko kopuruagatik, adjudikatutako gehieneko kopurura arte, eta Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuaren Euskara Atalak aldeztu aurretik baimendu ondoren.

Prestazioa ordaintzeari dagokionez, kontratistaren eskubideak Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 152. artikulutik 154. bitarteko artikuluetan bildu dira

17. ADJUDIKAZIODUNAK BERE GAIN HARTU BEHARREKO GASTUAK

Adjudikaziodunak, besteak beste, honako gastu hauek hartuko ditu bere gain (eta, hartara, ulertuko da kontratua egoki egiteko beharrezkoak diren bestelako gastuak bere eskaintzan sartuta daudela):

- Adjudikaziodunak berak kontratatutako langileen kostua eta haien joan-etorrietarako gastuak.

- Programa aurrera eramateko behar diren baliabide pertsonalen, materialen eta pedagogikoen kostua.

18. ADJUDIKAZIODUNAREN BEHARKIZUNAK

- a) Kontratatutako zerbitzua ematean, adjudikaziodunak bere proposamenean azaldutako baldintzak beteko ditu eta, aldi berean, baldintza-agiri hauek arautzen dituzten oinarrien arabera, hala nola hertsiki bete beharko ditu haietan zehaztutako baldintza teknikoak.
- b) Kontratista izanen da egindako prestazioen eta zerbitzuen erantzulea, bai eta kontratuaren gauzatzean izandako omisioak, hutsegiteak, metodo desegokiak edo zuzenak ez diren ondorioak direla-eta administrazioari edo hirugarrenei eragindako ondorioena ere.
- c) Kontratu publikoak kontratistaren arrisku eta menturara egikaritzeko dira, eta haiek egikaritzean gerta daitezkeen galera, matxura edo kalteak kontratistaren kontura izanen dira, interesdunak horietarako aseguruia egiten ahal badu ere.
- d) Beste alde batetik, adjudikaziodunaren betebeharren artean dago kontratua egitea egikaritzeko baldintza berezi hauekin bat:

- Ikasleen eskutan uzten den materiala birziklatua eta ez kutsatzailea izanen da.

- Langileak beren lantokian prestatzea bultzatuko du.

- Lantokian segurtasuna eta osasunaren babesa bermatuko du, baita aplikatzekoak diren hitzarmen kolektibo sektorialen eta lurralde mailakoen betetzea ere.

Kontratua indarrean den bitartean, enpresa adjudikazioduna gai izan beharko da egikaritzeko baldintza berezi horiek betetzen dituela egiaztatzeko.

Egikaritzeko baldintza berezi horiek orobat exijituko zaizkie kontratuaren egikaritzean parte hartzen duten azpikontratista guztiei.

19. PROGRAMAREN KUDEAKETA ETA IKUSKAPENA

Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuko Euskara Atalak kudeatu eta ikuskatuko du kontratuaren egikaritzea. Adjudikaziodunari jarraibideak ematen ahalko dizkio, betiere baimendutako prestazioan aldaketarik sortzen ez badute eta indarra duten xedapenen edo baldintza-agiri honen eta gainerako agiri kontraktualen klausulen kontrakoak ez badira.

Era berean, ikuskatu dezake, eta, eskatzen duenean, informazioa eman behar zaio adjudikaziodunak lanak prestatu eta egikaritzeko kontratuan aurreikusitako prozesuaren gainean eta, orobat, prozesu hori aztertu edo gainbegiratu dezake, berak edo aginduta.

20. ZIGORRAK

Kontratuaren unitate kudeatzaileak zerbitzua ematerakoan akatsik hautematen badu, kontratatari zigorrak aplika diezazkioke, apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 146. artikulua babesean.

Ez-betetzeak sailkapen hau dute:

Falta arinak: Zerbitzuaren ez betetze puntuala, ez funtsezkoa; materiala behar ez bezala erabiltzea; puntualtasun faltak; lanak egitean arrazoirik gabe atzeratzea.

Falta astunak: Administrazioaren jarraibideak ez betetzea, baldintza teknikoak modu larrian ez betetzea, lanen epeak ez betetzea eta/edo aurreko ez-betetze arin batean berrerortzea. Programako parte-hartzaileei emandako tratua errespetu gabea edo desagokia izatea.

Falta oso astunak: ingurumen, gizarte edo lan arloetan legezko xedapenek ezarritako betebeharrak ez betetzea, sekretu profesionalerako betebeharra ez betetzea eta orobat datuen babesaren arloko legeria aplikagarriaren ondoriozko betebeharrak, baldintza erregulatzaile hauek gutxienez ezartzen dituzten estaldurak dauzkan aseguru poliza ez mantentzea eta/edo aurreko ez-betetze astun batean berrerortzea.

Ez-betetzeak eskala honen arabera zehatuko dira:

Ez-betetze arinak, adjudikazioaren zenbatekoaren %1.

Ez-betetze astunak, adjudikazioaren zenbatekoaren %5.

Ez-betetze oso astunak, adjudikazio zenbatekoaren %10. Zigor hori kontratuaren zenbatekoaren %20 adinakoa izaten ahalko da, kontratua egikaritzeko baldintza bereziak betetzen ez direnean.

Ez-betetzeak eragindako zigorrak adjudikazioaren zenbatekoaren %10 baino handiagokoak direnean, kontratatatzeko debekua deklaratzeko prozedura hasten ahalko da.

Ezartzen ahal diren zigorren gehieneko zenbateko osoa ez da adjudikazioaren zenbatekoaren %20 baino gehiagokoa izanen.

Zigorrek kontratazio organoak erabakita ezarriko dira, kontratuaren unitate kudeatzaileak proposatuta, kontratistari entzutea eman ondoren, eta gauzatuko dira kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa eman beharreko zenbatekoetatik edo adjudikaziodunak eratutako bermetik kenduz.

Betiere, zigorrak ezartzeak ez du ukatzen Administrazioari ordaindu beharra lizitatzailerak eragindako kalte-galerengatik.

Kontratatzeko debekua deklaratzeko prozeduran Kontratuei buruzko Foru Legearen 24. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

21.- KONTRATUA SUNTSITZEA:

Administrazio kontratuak suntsiaraziko dira arrazoi hauek direla eta:

- Kontratuan ageri diren klausula edo/eta baldintzak ez betetzea

- Kontratista indibiduala hiltzea edo ezgaiturik geratzea, edo kontratista den sozietatearen nortasun juridikoa iraungitzea, salbu eta jaraunsle edo oinordekoek kontratuarekin jarraitzea adosten denean. Enpresen edo enpresa-adarren bat-egite, zatiketa, ekarpen edo eskualdaketa kasuetan, ondorioz sortzen den entitatea edo entitate onuraduna kontratistaren eskubide eta betebeharretan subrogatuko da, kontratua formalizatzeako eskatzen den kaudimenari eusten baldin badio.

- Edozein prozeduratan kaudimengabezia deklaratzeko, eta, konkurtsorik egonez gero, likidazio aldia hastea, salbu eta, azken kasu horretan, kontratistak kontratua gauzatzeako bermeak eman eta Administrazioak aski irizten dienean

- Administrazioa eta kontratista ados jartzea baldin eta, interes publikoko arrazoiaren ondorioz, ez bada beharrezkoa edo ez bada komeni kontratuak irautea, eta, betiere, kontratistari egozten ahal zaion beste arrazoiaren bat ez badago kontratua suntsiarazteko.

- Aginduzkoak diren bermeak ez jartzea.

- Epe barruan ez exekutatzea, epea funtsezkoa denean.

- Zigorrak kontratuaren adjudikazio zenbatekoaren %20 adinakoak direnean, bakarka edo denak batera.

- Kontratuaren exekuzio-aldian zehar kontratistak exekuzio horretan ari diren langileei soldatarik ez ordaintzea, edo indarreko hitzarmen kolektiboek langile horientzat ezartzen dituzten baldintzak larriki urratzea, kontratuaren exekuzio-aldian ere.

- Indarrean dagoen legediak ezarritako beste edozein baldintza ez betetzea.

.-Kontratua suntitzeko ebazpenaren prozedimendu eta eraginetarako, kontratu publikoen apirilaren 13ko 2/2018ko foru legearen 160. eta 161. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da.

22. LEGERIA APLIKAGARRIA

Administrazio klausula hauetan aipatzen den kontratua bereziki arautuko da baldintza-agiri honetan, bere jarraibide teknikoak barne, ezarritakoaren arabera eta, orobat, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen arabera.

Kontratuak errespetatu egin behar ditu lege, erregelamendu eta konbentzio mailetako xedapenak, indarrean daudenak honakoei dagokienez: fiskalitatea, Gizarte Segurantzza, ingurumenaren babesa, enpleguaren babesa, genero-berdintasuna, sexuagatiko jazarpena edo jazarpen sexuala, lan-baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa eta lan-arloko gainerako xedapenak, desgaituen laneratze eta gizarteratzea. Halaber errespetatu behar ditu desgaituen kopuru edo portzentaje zehatz bat kontratatzearen betebeharra eta, batez ere, kontratatu beharreko jarduera kokaturik dagoen sektorean esparrurik baxueneko azken hitzarmen kolektibo sektorialak ezarritako baldintzak.

Halaber, beste enpresa batekoak izan arren kontratuaren xedeko jardueran ari diratekeen langileen subrogazioaren mende dago zerbitzu kontratu hau, Kontratuei buruzko Foru Legearen 67. artikuluan aurreikusitako baldintzekin bat.

23.-JURISDIKZIOA ETA ERREKURTSOAK.

Kontratu honek administrazio-izaera du eta, ondorioz, obligazioen eta xedapen hauek interpretatzearen ondoriozko gorabehera oro, lehenik, kontratazio organoak ebatziko ditu. Organo horren ebazpenen kontra gora jotzeko errekurtsua paratzen ahalko da Hezkuntza Departamentuko kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo baino lehenago.

Esanak esan, lizitazio honetako izapide-egintzen edo behin betiko egintzen aurka erreklamazioa egin daiteke Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegian, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 122. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera. Hartara, nahitaezkoa da lizitatzailleek posta elektronikoko helbide bat ematea jakinarazpenak telematikoki egin ahal izateko.

2019-20 IKASTURTEAN D EREDUA DUTEN NAFARROAKO HAUR, LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN HIZKUNTZA PROIEKTUA EGITEKO PRESTAKUNTZA ZERBITZUA KONTRATATZEKO AGINDU TEKNIKOAK.

1. PROGRAMAREN DESKRIBAPENA

Programa honen helburua da D eredua duten Nafarroako Haur, Lehen eta Bigarren hezkuntzako ikastetxeetako hizkuntza-koordinatzaileei prestakuntza eskaintzea Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua egikaritzeko, eta prestakuntza hori aholkularitza eta tutoretza bidez ematea. Horrela, otsailaren 19ko 16/2019 Foru Aginduak ezarritako helburua gauzatu nahi da, berauk ezartzen baitu Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua hizkuntza-arloko Hezkuntza Proiektuaren garapena dela eta ikastetxearen plangintza-dokumentuekin eta curriculum-zehaztapenekin bat etorri behar duela.

Prestakuntza hori, gehienez ere, 20 hizkuntza arduraduni emango zaie, D eredua duten Nafarroa osoko ikastetxetakoak, eta helburutzat izango du Hizkuntza Proiektuaren dimentsioaren eta ezaugarrien kontzientzia hartzea eta ikastetxean bertan diseinuaren prozesua hastea; hori egiteko behar diren baliabideak ezagutzea eta erabiltzen ikastea; hizkuntzen eta beren didaktikaren ezaugarrien berri izatea eta norberaren hizkuntza eta kultura aniztasuna balioestea; ahazkotasuna eta ikastetxearen komunikazio hizkuntzarekiko atxikimendua lantzea; ikasgelan hizkuntzak irakasteko lana aztertzea eta hobekuntzak proposatzea; ikastetxearen proiektua diseinatzeko dinamizazio-prozesuak abiaraztea.

Horretarako, interesa duten ikastetxeei Hizkuntza Proiektuaren koordinatzaileentzako presentziatzeko prestakuntza eta laguntza praktikoa eskainiko zaie. Pertsona horiek arduratuko dira ikastetxe bakoitzean hizkuntza-proiektua nola landu dinamizatzeaz. Euskara Atalak lagundu eta koordinatuko du prestakuntza zerbitzua, Atalari atxikitako langileekin, hala eskatzen duten ikastetxeetan hurrengo ikasturteetan orokortua izan dadin.

Prestakuntzak gutxienez zortzi saio presentzial izango ditu, eta, halaber, ikastetxe bakoitzeko hizkuntza-praktiken azterketa, online plataforma baten diseinua ikastetxe bakoitzeko parte hartzailearekin prestakuntza koordinatzeko, eta hizkuntza-koordinatzaile bakoitzaren prestakuntza-prozesuaren jarraipen espezifikoa.

Nafarroan D eredua duten ikastetxe guztiak gonbidatuak izanen dira prestakuntza prozesu horretan parte hartzera, eta Hezkuntza Departamentuko Euskara Atalak hautatuko ditu azkenean parte hartuko duten hogeik ikastetxeak, prestakuntza eskaintzan zehaztuko diren irizpideen arabera.

2. PROGRAMA EGITEKO BETEBEHARRAK

Entitate esleipendunak programa garatzeko ekipo teknikoa eta aparatu administratiboa antolatu beharko ditu. Lan horien artean daude formazio saioetan parte hartu behar duten ikastetxeetako hizkuntza arduradunekin harremanetan jartzea, programan parte hartzeak dakartzan gastu guztiak kontuan hartzea eta, baleude, joan-etorriko gastuak eta dietak ordaintzea ere.

Entitate esleipendunak bere mendeko langile bat arduradun izendatuko du eta Hezkuntza Departamentukoekin solaskide arituko da kontratu hau egikaritzekoan leudekeen alderdi eta gorabehera guztietan eta, orobat, kontratatutako zerbitzuak zuzentzeaz arduratuko da. Pertsona horrek baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Gaian ezagutza teoriko eta praktikoa egiaztatzen dituen lanbide kualifikazioa eta esperientzia izatea.
- b) Entitate esleipendunaren ordezkaria izatea, kontratu honen xede diren zerbitzuak egiteko haren jarduna edo presentzia beharrezkoak direnean.
- c) Zerbitzua antolatzeko eta unitate kudeatzaileak emandako aginduak betetzeko behar den zuzendaritza-gaitasuna izatea.

Prestakuntzaren helburuak bermatzeko behar beste baliabide izango ditu proposamenak. Programa ebaluatzeko plan bat egongo da, baita koordinazio-plan bat ere parte hartzen duten ikastetxeetako Hizkuntza Proiektuaren ardura duten irakasleekin.

Halaber, eskaintzaileak esparru teoriko eta metodologiko bat proposatu beharko du hizkuntzen didaktika hobetzeko eta ahozketasuna eta ikastetxearen komunikazio hizkuntzarekiko atxikimendua sustatzeko, hizkuntza-aniztasunari balioa emanez eta jarrera positiboak sustatuz, ezagutzaren transmisioa bermatuz eta ikastetxeei baliabide didaktikoak eta materialak eskainiz, prestakuntza-saiotik harago.

Barne hartuko du generoaren ikuspegia eta aukera-berdintasunarena, hala aurrera eraman beharreko ekinbideetan nola prestakuntzan parte hartzen duten irakasleei aurkeztu beharreko materialetan, iritziak trukatzeko aukerak emanez. Irakasleen aholkularitza bermatuko du, irakasleek hala eskatzen badute.

Prestakuntza zerbitzuaren azken memoria prestatuko du, eta 2020ko ekainaren 30a baino lehen aurkeztuko du Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuko Euskara Atalean.

3. PROGRAMAREN EBALUAZIORAKO JARRAIPENA

Jarraipen batzordea eratuko da, honakook osatua:

- Euskara Ataleko teknikariak;
- Entitate esleipendunak izendatutako ordezkaria.

Batzordeak bilera egin dezake aldeetako edozeinek eskaturik. Nolanahi ere, behin bederen bilduko da kontratuak irauten duen bitartean.

Batzorde horretaz landa, Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuak jarraipena egingen du kontratua betetzen denetz ikusteko eta ikastetxeetara joan daiteke programa egiten den bitartean.

1. ERANSKINA

ADIERAZPEN EREDUA (A GUTUN-AZALA)

..... jaunak/andreak,
.....(e)ko (herria) kaleko
.....(a)n helbidea duenak, NANA duenak, jarduteko gaitasun
juridiko osoarekin entitatearen ordezkari moduan ari denak,
(entitatearen helbidea jakinarazpenetarako:(herria);
.....(kalea); (PK);
.....(telefonoa), (faxe);
(posta elektronikoa); (IFZ), 2019-20 ikasturtean D ereduaren dute
ikastetxeetan Hizkuntza proiektua egiteko prestakuntza-zerbitzuaren kontratuaren lizitazioari
dagokionez, eskaintza aurkezten du eta honako hau egiten du:

A) ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

- Lizitatuak betetzen dituela Administrazio publikoarekin kontratatzeko lege eskatzen diren baldintza guztiak eta, kasua bada, behar bezalako ordezkari duela. Adjudikazio proposamena berari eginez gero, konpromisoa hartzen duela frogatzeko badituela eta baliozkoak direla Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 55. artikuluan eskatzen diren agiriak, adjudikazioa jakinarazi eta gehienez ere zazpi eguneko epean.
- Ez dagoela arrazoirik lizitatuak lizitazio prozeduratik baztertzeko.
- Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren arloko baldintzak betetzen dituela.
- Bere helburuak edo jarduerak harreman zuzena duela kontratuaren xedearekin eta baduela kontratua behar bezala betetzeko nahikoa elementu pertsonal eta material dituen antolakunde bat.
- Beste entitate batzuen idatzizko konpromisoa daukala bitartekoak atxikitzeaz edo baliabideak erabiltzeaz, kasua bada.
- Lizitatuak betetzen dituela eta egunean dituela, indarra duten xedapenak ezarritakoaren arabera, zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak, lan segurtasunekoak eta osasunekoak, eta laneko arriskuei aurrea hartzekoak.
- Ukoa dakarten gorabehera guztietarako, Espainiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren menpe egon behar dela, eta lizitatuak dagokion zuzenbide jurisdikzionalaren menpe, atzerriko enpresen kasuan.

- Adjudikaziodun gertatuz gero eta kontratua sinatu aurretik, hitzematen duela kontratu honi dagozkion arriskuen estaldura egoki eta nahikorako lege eskaturiko aseguru polizak izenpetu eta lehiaketaren kontratazio organoaren aurrean aurkeztuko dituela, kontratazio hau arautzen duen baldintza-agirian ezarritakoaren arabera.
- Kontratazio hau arautzen duen baldintza-agiria ezaguturik, hitz ematen duela kontratua beteko duela hertsiki loturik agiri horiei, eta emanen den zerbitzuari buruz aurkeztu diren proposamen teknikoari eta eskaintza ekonomikoari.
- Helbide elektroniko hau ematen duela, kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa jartzen bada jakinarazpenak bide telematikotatik egin ahal izateko.
- Oharazten da erantzukizunpeko adierazpena egitean deus faltsutzea kontratatze debekua izateko arrazoi izanen dela, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 22.1i artikuluan ezarritakoaren arabera.

B) TALDE ESKAINTZA

Eskaintza taldean elkarturik parte hartzen duten lizitatzailerik aurkeztuz gero, adierazi kasu bakoitzean bidezkoa dena:

- Aldi baterako propio eratzen diren enpresari elkarteetan aurkeztu dira.
 - Taldean elkarturik aurkeztu dira. Horrelakoetan, zehaztu bakoitzaren partaidetza.
- | | |
|------------------------|-------------------------|
| Enpresaren izena | ⇒ Parte-hartzea % |
| Enpresaren izena | ⇒ Parte-hartzea % |

Ordezkaria (Izena eta NANA):

C) KONFIDENTZIALITASUNA

Lizitatzalearen berariazko adierazpena, aditzera ematen duena bere ustez zer informazio hartu behar den konfidentzialtzat, enpresa-estrategiaren parte izateagatik:

-
-

Kasua bada, inguruabar hori 2. gutun-azalean (Eskaintza teknikoa; irizpide kualitatiboak) sartzen den dokumentaziotik konfidentzialtzat hartzen den horretan ere adierazi beharko da.

.....(e)n,(e)koaren....(e)an

Sin.

2. ERANSKINA

ESKAITZA EKONOMIKOA (C GUTUN-AZALA)

.....
jaunak/andreak, helbidea
.....(e)an duenak,
..... NANA duenak, bere izenean edo
..... ordezkatzuz (ezabatu behar dena). Entitatearen
helbidea: IFZ:; telefonoa:
.....; eta faxa, “D EREDUA DUTEN NAFARROAKO
IKASTETXEETAN HIZKUNTZA PROIEKTUA EGITEKO PRESTAKUNTZA ZERBITZU BATEN
KONTRATAZIOA ARAUTZEN DUEN BALDINTZA-AGIRIA, 2019-20 IKASTURTEAN EGIN
BEHARREKOA” arautuko duten baldintza-agiriak ezagutzen ditu, haien eduki osoa onartzen du
eta hitz ematen du / berak ordezkatzuz duen entitateak hitz ematen du (zer behar eta horrela)
aipatutako baldintza-agiri horietan jarritakoa hertsiki beteko duela jarraian jarritako prezioan,
kontratua sinatzen den unetik 2020ko ekainaren 30a arte:

PREZIO OSOA, BEZik gabe	
-------------------------	--

.....(e)n,(e)koaren(e)an

Sin.

3. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO LIZITATZAILEEN ERREGISTROAN JASOTAKO DATUAK EZ DIRELA ALDATU ADIERAZTEKO*

..... jaunak/andreak, NANA duenak, Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatzzaileen Erregistroan zenbakiarekin izena eman duen enpresan den aldetik (1), bere erantzukizunpean adierazten du Lizitatzzaileen Erregistroak dituen enpresaren datuak indarrean daudela eta ez direla deus ere aldatu, eta Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatzzaileen Erregistroko izena ematearen ziurtagiria, zenbakiko espedientean, agertzen direnak berak direla. Ziurtagiria agiri honi erantsia dago Nafarroako ikastetxeetarako hizkuntza proiektua egiteko prestakuntza zerbitzu baten kontratazioaren lizitazioan parte hartzeko. Formazio hori 2019-20 ikasturtean egin beharrekoa da, D eredua duten Nafarroako ikastetxeetako hizkuntza koordinatzaileei zuzenduta, eta Nafarroako Hezkuntza Departamentuak sustatua da.

(1) Adierazi administratzailea ala ahalduna den.

(Tokia, eguna eta sinadura)

* Argibide gehiagotarako: www.navarra.es (urratsak: zerbitzuen katalogoan, kontratazioen barnean eta haiekin zerikusia duten esteketan, jo Lizitatzzaileen Borondatezko Erregistrora)